


Bermeoko Armarria

Azalpen grafikoa, Gaztelu aldean, Bermioko kaiako sarreran dagon Ate-mollegaz, egiten da..

Antziñatik agertzen da Bermio, merkataritza kai eraginkorrenetarikoa, ontzi-ornitarako garrantzitsuena ta Bizkai kostaldeko bizilagun geien eukena.





Irudia: Genaro Cobo

Bere armarrria 1.297 an Alkartearen agiriartean agertzen da, auzigaiak epaitzeko ta merkataritza indartzeko.

Ikurdi au 1.297n Bermeoko Konzejoko Procuradoreak eskuratu eben Catro-Urdialesko Batzarretan parte artu ta Frantziako Erregearen ordezkari egaz artu emonak eukiteko.

Idatzirik dago, Iruñako Comtos- Kanbaran arkitzen dala agiri orren jatorrizkoa, larrukizkoan, ta lotuta daukala zeradun Bermeoko zigilu andi bat.

Bermeok daukazan Armarrietako baten, onako leyenda dotorea ikusten da: "Bizkaiko buru dan Bermeoren Zijilua da au" (HOC, EST SIGILLUM DE BERMEO CAPITALE VIZCAIE).

Onetiko idazkuna, ziur asko, Bilbok bere garrantzia lortu aurretik, egindakoa da.

Beste armarrri baten auxe irakurri leike latiñez: **STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI.**

Udaletzeko balkoian agertzen zan estandarte zar batek auxe iñoian latiñezkoaren esan naia euskeraztuz: **BERMEO, LENDIK GARESTUNEZ APAINDUA ZAN.** (Erderaz: Bermeo, desde antiguo se coronó de gloria).

Udaletxea apainduten dauen armarrriak, auxe diño: **BERMEOKO ARMARRIA ZARRENA TA GARRANTSI-TSUENA DA.**

Ikurdi onen esanaia axe dozu: Lau arraunlari eski- fe ganean itsas- mamuzar bat arrapatu gurean. Goien dozu gizon baten burua ta luki bi. Agure baten buruaren berezitasuna 1.476n Fernando Katolikuak Bermeori emon eutson pribilegioari zor jako, **BIZKAIKO BURUTZAT** onartzen dabelako.

Agustin Arrien

